

P. PENS. CAJA LABORAL MONETARIO

TXOSTENA HIRUGARREN HIRUHILEKOA 2021

Txertaketak munduan izan duen aurrerapenari esker, datozen hiruhilekoetan ekonomiak hobera egingo duela hasi gara gero eta gehiago sinesten. Ondorioz, finantza-merkatuen hegakortasuna baretu egin da eta 2021ean eta 2022an mundu-mailan izango den hazkunde sendoaren oinarriak finkatu egin dira. Hala ere, badira oraindik aurreikusitako susperraldiari oztopoak jar diezazkioketen arrisku-faktoreak. Inflazioa da garrantzitsuen. Hasieran koiunturala zela uste bazen ere, denborarekin ikusi da iraunkorragoa dela, eta horrek kezka areagotu du. Gainera, negua hurbiltzen ari delarik, gasaren eta argindarraren garestitzea are larriagoa da, eta produkzio-prozesuan funtsezkoak diren lehengaien hornidura-arazoek ez dute etenik. Egoera horrek azken prezioak garestitzea eta produkzio-geldialdiak eragin ditzake, eta urteko azken hiruhilekorako eta 2022ko lehen erdirako oraindik ere aurreikusten diren hazkunde-zifra handiak apaldu. Hala, euroguneak izango du hazkunde-erritmorik handiena, % 5etik gorako zifretara iritsiko baita datozen hiruhilekoetan, Estatu Batuetan eta garatzeko bidean dauden herrialdeetan baino apur bat gorago. Oraingoan, banku zentralak irmo eusten diete diru-politika hedakorrei, eta, aldi berean, urteko inflazio-tasak haien helburuetatik gorakoak izan litezke. Inflazioaren gorakadaren aurrean banku zentralak erakutsi duten lasaitasunak eragina izan du diru-merkatuko aktiboaren errentagarritasunean, eta gutxieneko historikoetatik hurbil jarraitzen dute. Hazkundera bideratutako politikari eutsiko dizkiete, eta pizgarriak poliki-poliki joango dira kentzen. Izan ere, ez dago aurreikusita Europako Banku Zentralak eta Erreserba Federalak interbensio-tasak mugitzea, ez aurten ez datorren urtean. Beraz, tasak oso maila apaletan finkatuta egongo dira, eta horrek epe laburreko zorraren errentagarritasuna oztopatuko du. Hala, zorroko Altxorraren zorra ez da ia mugitu, eta 10 urteko bonuaren Errentagarritasuna % 0,45eko zonaldean dago. Kalitaterik handieneko eurotako errenta finko korporatiboak ia ez du baliorik irabazi hiruhilekoan: +% 0,08. Bonu horiek gobernu-zorraren aurrean kotizatzen duten diferentziala oinarritzko puntu bat handitu da, eta oso maila txikietan jarraitzen du. Gobernu-bonuen egonkortasunak lasaitasuna sustatu du bonu korporatiboetan.

ARAUDI ALDAKETAK

Hiruhilekoan ez da araudi aldaketarik izan.

PLANAREN DATU IDENTIFIKATZAILEAK

- . DGSFPen Erregistroan F1513 zenbakiarekin inskribatutako Pentsio Fundoa.
- . Atxikitako Pentsio Plana: P. PENS. CAJA LABORAL MONETARIO. Erregistro-zenbakia: N4296
- . Sozietate Gestorea: CAJA LABORAL PENSIONES S.A., G.F.P., PS José M. Arizmendiarieta s/n 20500-Arrasate/Mondragón (Gipuzkoa). Erregistro-zenbakia: G0217
- . Entitate Gordailuzaina: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREDITO, PS Jose Maria Arizmendiarieta S/N 20500-Arrasate/Mondragón (Gipuzkoa). Erregistro-zenbakia: D0194
- . Gutxieneko inbertsioa: 30,05 euros.
- . Entitate Ikuskaria: PRICEWATERHOUSECOOPERS S.A.
- . Errenta finko eta diru merkatuko aktiboetan inbertitzen duen Pentsio Plan Indibiduala.
- . Entitate Kudeatzaileak bere Jokaera Araubidean jasotako prozedurak ezari ditu interes-gatazkak ekiditeko eta lotutako eragiketak Erakundearen mesedean soilik eta merkatuko baldintza berdinetan edo hobekoetan egiten direla bermatzeko.
- . Euskadiko Kutxa, fondoaren Entitate Gordailuzaina, Entitate Kudeatzailearen bazkide bakarra da eta, indarreko araudiak betez, bi entitateen artean jarduerak bereizteko irizpideak ezarri dira.

PLANAREN PORTAERA

ALDIA	ERRENTAG. GARBIA	GASTUAK GUZTIRA
3.Hiruhilekoa	-0,25	0,15
2021eko metatua	-0,64	0,46
2020 Urtea	-0,67	--
Azken 3 Urteak	-0,74	--
Azken 5 Urteak	-0,68	--
Azken 10 Urteak	-0,24	--
Azken 15 Urteak	--	--
Azken 20 Urteak	--	--

DATU OROKORRAK

	EGUNGO HIRUHILEKOA	AURREKO HIRUHILEKOA
Ondarea	9.734.366,86	9.890.856,44
Partaidetza kopurua	1.665.970,78	1.688.510,02
Likidazio-balioa partaidetzagatik	5,843060	5,857742
	EHUNEKOA	KALKULO OINARRIA
Urteko kudeaketa komisioa	0,45%	S/Patrimonio
Gordailuzainaren urteko komisioa	0,05%	S/Patrimonio

MERKATU ARRISKUA

Errenta Finkoaren Iraupena	0,11
Errenta Aldakorraren %	--

ZORROAREN ERAKETA MERKATU BALIOAN

BALIOAREN DESKRIBAPENA	21/09/30EKO BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
ERRENTA FINKOA	7.938.115,23	100,00%
REPO	5.488.890,61	69,15%
BO. COMUNIDAD FORAL NAVARRA 4% 161115	1.040.202,19	13,10%
BO. FADE 0,625% 220317	201.724,66	2,54%

BALIOAREN DESKRIBAPENA	21/09/30EKO BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
BO. FADE 1,45% 220617	305.322,37	3,85%
BO. FORD MOTOR CREDIT 2112 01	599.616,00	7,55%
BO. GOLDMAN SACHS 211018	302.359,40	3,81%
ZORRO OSOAREN	7.938.115,23	100,00%